

**Marco  
institucional**

**Erakundeen  
esparrua**



Ura ondasun urria eta interes orokorrekoa denez, administrazio publikoei dagokie ura behar bezala kudeatzea. Hori onartu arren, arazoak izaten dira administrazioen eskumenak banatzean. Izan ere, sarritan irizpide nolabait ere operatiboak erabiltzen dituzte -esaterako, aginpide guztiak biltzeko joera-, deszentralizazio printzipiotik urruntzen direnak.

Uraren ziklo osoaren kudeaketaz ari garela, arro hidrografikoak banatzen dira:

1. Erkidegoen arteko arroak, autonomia erkidego batekoak baino gehiagokoak badira. Mota horretakoak dira Espainiako ibai handietako arroak.

2. Erkidego barruko arroak, autonomia erkidego bakarrekoak.

Uraren legean ezarritakoaren arabera, uraren kudeaketako eskumen banaketa Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean, arro hidrografikoaren banaketarena da. Hartara, autonomia erkidegoei erkidego barruko ibaien kudeaketa dagokie. Estatuari, aldiz, zenbait autonomia erkidegotatik doazen ibaien kudeaketa.

Eskumenen banaketa 1994ko maiatzaren 31ko Transferentzien Batzorde Mistoarekin (uztailaren 8ko 1551/1994 Errege Dekretuak onartua) gauzatu zen: Euskal Autonomia Erkidegoarenak dira ordutik baliabide eta ustiapen hidraulikoen funtzioak eta zerbitzuak. Horrekin batera, Estatuko Administrazioak

Como bien escaso y de interés general, corresponde a las Administraciones Públicas la correcta gestión del agua. Frente a la pacífica aceptación de tal principio, se presenta la problemática distribución competencial entre Administraciones, regida en muchas ocasiones por criterios un tanto operativos como de acaparamiento atributivo, alejados del principio básico de descentralización.

Desde la óptica de la gestión del Ciclo Integral del Agua, las cuencas hidrográficas se dividen en:

1. Cuencas intercomunitarias, que pertenecen a más de una Comunidad Autónoma. Es la regla general en lo que respecta a los grandes ríos españoles.

2. Cuencas intracomunitarias, pertenecientes a una sola Comunidad Autónoma.

La Ley de Aguas estableció que el criterio delimitador de las competencias de gestión del agua entre el Estado y las Comunidades Autónomas es el de la cuenca hidrográfica. En base al mismo, la Comunidad Autónoma es competente para desarrollar la gestión de los ríos intracomunitarios, correspondiendo al Estado los ríos que transcurren por varias Comunidades Autónomas.

Esta distribución de competencias se ha materializado a través del acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de 31 de Mayo de

El agua es un bien público y escaso por lo que debe ser correctamente gestionado por las Administraciones Públicas.

Ura ondasun publikoa da, eta urria, gainera. Ondorioz, Administrazio publikoek behar bezala kudeatu behar dute.

Eusko Jaurlaritzaren esku utzi ditu bere funtzioak, jabetza publiko hidraulikoko baimenen eta garbiketaren arloan (19940531ko kudeaketaren zuzenketa). Hala ere, eskumen horien ebazpena Estatuaren menpe dauden konfederazio hidrografikoena da.

2. planoak Arabako arro hidrografikoei dagozkien erakundeak zein diren adierazten du. Ikusten denez, Araban komunitate barruko arro bakarra dago (Aramaio aldea), eta Euskal Autonomia Erkidegoak du haren eskumena. Probintziako gainerako arroen eskumena Iparreko eta Ebroko konfederazio hidrografikoei dute.

Ura batetik bestera eramatearen aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoak hartzen ditu Estatuko Administrazio Zentralarenak ziren eskumenak. Zehatzmehatz, ondoko eskumenak aipatuko ditugu:

## PLANO 2 - SITUACIÓN INSTITUCIONAL DE CUENCAS HIDROGRÁFICAS DE ÁLAVA

### 2. PLANO A - ARABAKO ARRO HIDROGRAFIKOAKETA ERAKUNDEAK



1994, aprobado por Real Decreto 1551/1994, de 8 de Julio, por el que se traspasan a la Comunidad Autónoma del País Vasco funciones y servicios relativos a recursos y aprovechamientos hidráulicos. Asimismo, y simultáneamente, la Administración del Estado ha atribuido al Gobierno Vasco a través de la encomienda de gestión de 31-05-1994, la realización de funciones de su competencia en materia de autorizaciones referentes al dominio público hidráulico y a la policía del mismo. No obstante, la capacidad de resolución de estos asuntos encomendados, corresponde a las Confederaciones Hidrográficas dependientes del Estado.

En el Plano nº 2 se señala la situación, a los efectos reseñados, de las Cuencas Hidrográficas de Álava. Como se puede apreciar, en Álava sólo existe una zona perteneciente a una cuenca intracomunitaria (zona de Aramaiona) con competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En el resto del Territorio Histórico la competencia la





Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeetan egitekoak diren, eta haren interesekoak diren ustiaketak eta bestelako lan hidraulikoak programatzea, onartzea, aurrera eramatea eta ustiatzea.

Egoki denean, diru laguntzak ematea tokiko korporazioei, erakundeei edota partikularrei, aurrean aipaturiko lanak egin ditzaten.

Euskal Autonomia Erkidegoari transferitutako eskumenak gaurdaino ez dituzte banatu Autonomia Erkidego osorako erakundeen zein foru erakundeen artean, nahiz eta Lurralde Historikoen Legea indarrean izan.

Lege horri jarraiki, Arabak ondoko eskumenak ditu:

#### 1. Eskumen eskusiboa:

Obra eta Zerbitzuen Foru Plana idaztea eta onartzea, eta tokiko erakundeei laguntza teknikoa ematea.

tienen las Confederaciones Hidrográficas del Norte y del Ebro.

En cuanto a las transferencias operadas, la Comunidad Autónoma del País Vasco asume las mismas competencias que tenía la Administración Central del Estado. En concreto dentro de estas competencias se pueden citar las siguientes:

Programación, aprobación, ejecución y explotación de los aprovechamientos hidráulicos y demás obras hidráulicas que se realicen en el Territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuando tales actuaciones sean de su interés.

El otorgamiento, en su caso, de auxilios económicos a corporaciones locales, entidades o particulares para la ejecución de las obras anteriores.

Las competencias transferidas a la Comunidad Autónoma no han sido, hasta la fecha, redis-

Las competencias transferidas a la Comunidad Autónoma hasta la fecha no han sido redistribuidas entre las Instituciones Comunes y los órganos Forales de los Territorios Históricos.

**Euskal Autonomia Erkidegoari transferitutako eskumenak, gaurdaino, ez dituzte banatu Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta foru erakundeen artean.**

Los Territorios Históricos tienen competencia en obras públicas cuya realización no afecte a otros territorios históricos ó no se declaren de interés general por el Parlamento.

**Probintziek obra publikoen eskumena dute, baldin eta beste probintzia batzuei eragiten ez badiete, edota Legebiltzarrak interes orokorrekozat jo ez baditu.**

Obra Publikoak, baldin eta beste probintzia batzuei eragiten ez badiete, edota Legebiltzarrak interes orokorrekozat eman ez baditu.

2. Garatzea eta gauzatzea: Autonomia Erkidego osorako erakundeetako arauak garatzeko eta gauatzeko eskumena du ondoko gaietan:

Nekazaritza arloko berrikuntza eta garapena.

Kontinenteko arrainen eta ehizaren ustiaketa erregimena.



tribuidas entre las Instituciones Comunes y los órganos Forales de los Territorios Históricos, a pesar de la vigencia de la Ley de Territorios Históricos, (L.T.H.).

En virtud de la misma, el Territorio Histórico de Álava es titular de las siguientes competencias:

1º.- Competencia exclusiva:

Redacción y aprobación del Plan Foral de Obras y Servicios y asesoramiento técnico a las Entidades Locales.

Obras Públicas cuya realización no afecte a otros Territorios Históricos o no se declare de interés general por el Parlamento.

2º.- Desarrollo y Ejecución: Es competente para el desarrollo y la ejecución de las normas de las Instituciones Comunes en las siguientes materias:



Ur publiko kontinentalen, haien ubide naturalen eta adarren garbiketa.

Era berean, hiriko uren hornikuntzari eta saneamenduari buruz ari garela, aldundien eskumen dira ondokoak, Toki Jaurbidearen Oinarriak Arazten dituen Legearen arabera:

Probintzia osoan udal eskumeneko zerbitzu guztiek prestazio egoki eta osokoak izan ditzatela bermatzea.

Udal zerbitzuak euren artean koordinatzea, prestazio osokoa eta egokia bermatzea dutela helburu.

Udalerriei laguntza zein kooperazio juridikoa, ekonomikoa eta teknikoa eskaintzea, batik bat ekonomia eta kudeaketa ahalmen txikienekoei.

Udalerriaz gaindiko eta, hala badagokio, eskualdeaz gaindiko zerbitzu publikoak eskaintzea.

Reforma y desarrollo agrario.

Régimen de aprovechamiento de la riqueza piscícola continental y cinegética.

Policía de las aguas públicas continentales y de sus cauces naturales y servidumbres.

Asimismo, en materia de abastecimiento y saneamiento de aguas urbanas, la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local atribuye a las Diputaciones las siguientes competencias:

Asegurar la prestación integral y adecuada en la totalidad del Territorio provincial de los servicios de competencia municipal.

Coordinación de los servicios municipales entre sí para la garantía de su prestación integral y adecuada.

Asistencia y cooperación jurídica, económica y técnica a los Municipios, especialmente a los de menor capacidad económica y de gestión.

En materia de abastecimiento y saneamiento la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local atribuye a las Diputaciones ciertas competencias.

**Hornikuntzari eta saneamenduari dagokienez, Toki Jaurbidearen Oinarriak Arazten dituen Legeak zenbait eskumen ematen dizkie aldundiei.**



Los Ayuntamientos son competentes para prestar los servicios públicos de suministros de agua y saneamiento de la misma, competencias que en el Territorio Histórico de Álava se extiende a los Concejos.

**Espainiako Erresuman, udalek aginpidea dute uraren horniketa eta saneamendu zerbitzu publikoak eskaintzeko. Eta, Araban, kontzejuek ere badute aginpide hori.**

Ez dezagun ahantz, toki arauei jarraiki, udalak direla uraren horniketa eta saneamendu zerbitzuak eskaini behar dituztenak. Araban, eskumen hori kontzejuek da.

Bestalde, eta indarrean den toki administrazioen legeekin bat, aldundiek toki erakundeei lagundu behar diete euren betebeharrak garatzen. Hau da, aldundiek udalerrietako uraren hornikuntzarako eta saneamendurako laguntza ematea, toki erakundeek eskatzen baldin badute. Oro har, laguntza horiek foru planen bidez eman dituzte. Altako uraren hornikuntzak eta saneamenduak berriz, Uren Zerbitzuen bitartez egin dituzte.

Ura kudeatzeko garaian hainbeste eskumen identifikatzeak eta izateak arazoak dakartza urari buruz eztabaidatu eta politika egokiak ezarri behar direnean. Beraz, beharrezkoa da

Prestación de servicios públicos de carácter supramunicipal y, en su caso, supracomarcal.

Tampoco se debe olvidar que conforme a la legislación de régimen local, los Ayuntamientos son competentes para prestar los servicios públicos de suministros de agua y saneamiento de la misma, competencias que en el Territorio Histórico de Álava se extiende a los Concejos.

Por otro lado de acuerdo con la legislación vigente en materia de Administración Local, las Diputaciones tienen el deber de prestar ayuda a otros entes locales en el desarrollo de sus competencias. Ello obliga a la Diputación a prestar ayuda en materia de abastecimiento y saneamiento a los Municipios, pueblos, etc. siempre y cuando las Entidades Locales así lo soliciten. Estas ayudas se han realizado gene-

erakundeen arteko adostasuna, bai administrazio publikoei, bai herritarrei, uraren arloan administrazio bakoitzaren eskumenak zeintzuk diren argitzeko.

Orain arte esandakoaren laburpen gisa, ondokoa azpimarratu behar dugu: beharrezkoa da eskumenak argi eta garbi zehaztea. Horrela, Foru Aldundiak beste probintzia batzuei eragiten ez dieten eta Eusko Legebiltzarrak interes orokorreko izendatu ez dituen obra hidraulikoak programatu, proiektatu, eta gauzatu ahal izango ditu eta, hala nahi izanez gero, baita laguntzak eman ere.

Eskumenak definitzea eta argitzea Arabako Foru Aldundiko Uren Zerbitzua egituratzeko, egonkortzeko eta garatzeko lehenengo urratsa da. Horrek Arabako beharrezko erantzuteko azpiegitura hidrauliko egokiak gauzatzea ahalbidetuko du.

ralmente a través de los Planes Forales y en materias de abastecimiento y saneamiento en alta, se han canalizado a través del Servicio de Aguas.

La concurrencia e identificación de competencias sobre la gestión del agua crea serios problemas a la hora de abordar su problemática y concretarla en políticas adecuadas. Por ello, resulta necesario incidir en la necesidad de conseguir un acuerdo institucional en esta materia para definir y clarificar, tanto a las Administraciones Públicas como a los ciudadanos, las competencias y responsabilidades de cada Administración en materia de agua.

Como resumen de este panorama parece necesario insistir en la necesidad de crear un marco competencial claro que permita a la Diputación Foral programar, proyectar, ejecutar y también ayudar en la explotación en materia de obras hidráulicas que no afecten a otros Territorios, o sean declaradas de interés general por el Parlamento Vasco.

Esta definición y clarificación de las competencias es el paso inicial a la vertebración, estabilización y desarrollo del Servicio de Agua en esta Diputación Foral, como fórmula idónea para la realización de infraestructuras hidráulicas adecuadas a las necesidades de Álava.

Parece necesario insistir en la necesidad de crear un marco competencial claro que permita a la Diputación Foral poder programar, proyectar, ejecutar y si se quiere ayudar en la explotación en materia de obras hidráulicas que no afecten a otros territorios, o sean declaradas de interés general por el Parlamento Vasco.

**Azpimarra dezagun beharrezkoa dela eskumenak argi eta garbi zehaztea. Foru Aldundiak, hartara, beste probintzia batzuei eragiten ez dieten eta Eusko Legebiltzarrak interes orokorreko izendatu ez dituen obra hidraulikoak programatu, proiektatu, eta gauzatu ahal izango ditu, bai eta, hala nahi izanez gero, laguntzak eman ere.**